

## **Gripearen kontra txertatzeko 2020-2021 kanpaina – Hezkuntza Departamentua**

Txertatzeko kanpaina **2020ko urriaren 5ean hasi, eta azaroaren 27an bukatuko da.**

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzutik txertoa paratzeko animatu nahi zaituztegu langileok, eta oroitarazten dizuegu **haurdunaldian jar daitekeela** eta haurdun egonik noiznahi paratu daitekeela.

**1.- Hezkuntza Departamentuko irakasleak eta irakasle ez direnak**, bai egoitzan daudenak, bai ikastetxeetakoak, **Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalera** joan daitezke txertoa **doan** paratzera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko sotoan baitago: Landabengo industrialdea, E/F kalea, Iruña. Hala ere, **hitzordua eskatu behar da aurretik.**

**2.- Horrez gain, ikastetxeetako irakasleek aukera hauek ere badituzte:**

**2.1 Gizarte Segurantzako araubide orokorreko irakasleak, eta Gizarte Segurantzako araubide bereziko irakasleak (MUFACE), osasun laguntza publikoa aukeratu dutenak, Nafarroako Gobernuko Osasun eta Hezkuntza Departamentuen arteko gripearen aurka txertatzeko kanpainarako lankidetzari jarraikiz: txertoa doan jarriko zaie beren osasun etxean edo lantoki duten ikastetxetik hurbilen dagoen osasun etxean.**

**2.2 Gizarte Segurantzako araubide bereziko irakasleak (MUFACE), osasun laguntza ENTITATE PRIBATUEN bidez jasotzea aukeratu dutenak:**

**Jarraitu beharreko prozedura kontsultatu beharko dute beren osasun entitatearekin, baita txertoa doan jarriko dieten entitateko zentroak ere, medikuak hori agindu eta gero.**

Osasun etxe publiko batera badoaz txertoa jartzera, haien entitateko zentro itundu bat **EZ** denez, 36,27 euro kobratuko zaizkie “erizainaren balorazioa” eta “txertoa jartzea” kontzeptuengatik.

Ordaindu beharreko zenbatekoa ebazpen honetan zehaztutakoa da: 1564/2018 Ebazpena, abenduaren 20koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko

zuzendari kudeatzaileak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazioen tarifak ezartzen dituena.

### **OHARRA:**

Txertoen egutegia eguneratua izateko, garrantzitsua da Laneko Arriskuen Prebentziorako Atala **EZ** diren zentroetan txertatzen den langileak horren berri eman dezala posta elektronikoz edo telefonoz, datu hori erregistro informatikoan idazteko.

Helbide elektronikoa: [seccion.prevencion.educacion@navarra.es](mailto:seccion.prevencion.educacion@navarra.es)

Telefonoak: 848 428533.  
848 428534.  
848 423731.

Era berean, gomendagarria da ezen **ikastetxeetako zuzendaritza taldeak harremanetan jar daitezten hurbilean dituzten osasun etxeekin** eta zehaztu dezaten zer egun eta zer orduan joaten ahalko diren irakasleak gripearen aurkako txertoa paratzera.